

# GOGOETA KRITIKOA, ESPAINIAKO ARAUDIAK GENERO INDARKERIAN ETA SEXU INDARKERIAN BITARTEKARITZA DEBEKATZEARI BURUZKOA

**Justizia Errestauratiboaren Teoria eta Praktikako  
Laborategia<sup>1</sup>**  
Kriminologiaren Euskal Institutua  
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

Genero indarkeria kasuei loturiko bitartekaritzaren debeku orokorrari dagokionez, biktimagilea adin nagusikoa denean, Espainiako araudian (1/2004 Legea) jasota dagoena, eta kontuan izanik debeku hori sexu indarkeriara zabaldu berri dela (10/2022 Legea), behean sinatzen duten pertsonen -justizia errestauratiboan diharduten akademia, ikerketa eta praktika arloetako kideak- ondokoa adierazi nahi dute, oinarri harturik esperientzia praktikoa, egungo ikerketaren emaitzak eta arlo honetan garrantzia duten nazioarteko dokumentu legalak eta estandarrak:

1. Debekua suposizio batean oinarritzen da, zeinaren arabera bitartekaritza kaltegarria izan daitekeen, genero indarkeriaren eta sexu indarkeriaren biktimen zaurgarritasun handiagatik eta justizia pribatizatzeko arriskuagatik, biktimizazio mota hau auzitegietatik kanpo tratatzen denean. Gainera, badirudi legez justifikatuta dagoela, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Istanbulgo Hitzarmenaren 48. artikulua arabera.
2. Hala eta guztiz ere, suposizio hauek ez dituzte kontuan hartzen gai honetan azken urteetan bildu diren ebidentzia zientifikoak, eta artikulua hori oker interpretatu da, debekua ezartzen baitu hitzez hitz eta soil-soilik gatazkak modu alternatiboan ebazteko *nahitaezko* prozesuetan, bitartekaritza eta adiskidetzeari barne, Hitzarmenean jasotako indarkeria mota guztiei dagokienez. Horrenbestez, soilik debekatzen da nahitaezko bitartekaritza, eta hori oso urrun dago justizia errestauratiboan oro har onartzen diren jardunbide egokien estandarretatik. Izan ere, justizia errestauratiboan, espezifikoki trebatuta dagoen bideratzaileak kontu handiz prestatzen du prozesu errestauratiboa, parte hartzaile guztien baimen informatuan eta adostasunean oinarrituta. Definizioz, borondatezkoa izatea eta biktimizazio sekundarioa saihestea, baita berbiktimizazioa ere, funtsezko ezaugarriak dira justizia errestauratiboaren prozesu orotan, ondoren aipatzen diren nazioarteko arauak jarraiki arlo penalean aurreikusten eta praktikan jartzen den bezala. Gainera, estandar hauek argi uzten dute bitartekaritza eta adiskidetzeari ez direla Justizia Errestauratiboaren sinonimoak.
3. Kontuan izanik eskala konparatua garatutako ikerketa larri sendo bat eta nazioarteko estandar arauemaileak, ondorio hauek atera daitezke:
  - Justizia errestauratiboa (ulerturik kaltea edo kalte arriskua tratatzeko ikuspegi gisa, erasandako pertsona guztiak parte hartzearen bidez, adostasun batera heltzeko kaltea edo legez kontrako egintza ordaintzearen inguruan eta justizia lortzeko) justizia modu berri bat da, justizia penalaren ohiko mekanismoei gehi dakiekeena, justiziak sexu delituen eta genero indarkeriaren biktimei ematen dizkien erantzunak hobetzeko. Hainbat praktika modu barne hartzen ditu, bitartekaritza eta adiskidetzeari harago, parte hartzeko aukera ematen dietenak erasandako pertsona guztiei, zuzeneko eta zeharkako biktimak, baldin eta parte hartzea libreki onartzen badute, bereziki zuzeneko biktimen kasuan, justizia penal aruntak egoki erantzun ezin duenean (ezinbestean biktimizazio sekundarioa dakarren justizia).

---

<sup>1</sup> <https://www.ehu.es/es/web/ivac/sarrera>. Kontaktua: [idoia.igartua@ehu.es](mailto:idoia.igartua@ehu.es)

- Justizia errestituratihoak aukera ematen du ulertzeko eta hobeto ordaintzeko delituak eragindako kaltearen dimentsio askotarikoak, areagotu egiten du arau hausleak delituagatik duen erantzukizun zentzua, aukera ematen du biktimek ordaina edo barkamena jasotzeko, aukera ematen du biktimek galderak egiteko eta informazioa jasotzeko, baliabide bat ematen du biktimek gertaerak haiengan izan duen eraginari buruz hitz egiteko, aukera ematen die biktimei nolabaiteko kontrola berreskuratzeko eta, azkenik, maximizatu egiten du justiziara heltzeko aukera, halako moldez, non kontuan hartuko diren ere delitugilearen eta delitua egin den komunitatearen eskubideak eta beharrak. Genero indarkeria eta sexu indarkeria kasuetan, justizia errestituratihoaren helburuen artean egon daiteke ere erasandako pertsonen errekuoerazioa, beren bizitzarekin jarraitzeko modua izan dezaten, beren potentzialtasun eta erantzukizun guztiekin, erasotzaileei dagokienez. Familia barruko sexu indarkerian, garrantzitsua izan daiteke ere familia harremanen inguruan ahalduetzeko lana (ikus I. eranskina).
- Justizia errestituratihoa beti oinarritzen da parte hartzaile guztien borondate libre eta informatuan, haien arteko orekan, kontrolaren berreskurapenean eta biktimearen autonomiaren aitortzan, eta inoiz ez da erabili behar parte hartzaileetako batek benetako interesik ez badu edo prozesuari aurre egiteko prest ez badago. Baldintza horiek kontu handiz egiaztatzen dira beti, prozesu errestituratihoa hasi aurretik eta baita prozesuan zehar ere, eta formakuntza berezia duten profesionalak arduratzen dira horretaz, protokolo espezializatuak erabili. Zehazki, horren barruan sartzen dira: genero indarkeriaren biktimek eta arau hausleen beharren eta arriskuen ebaluazio espezifikoa (prozesu mota honetan sartzeko egokitasuna egiaztatzeari begira), prestakuntza berezia genero indarkerian eta sexu indarkerian, eta prozesuen segimendua, kanpoko auditoriak barne. Edozein botere desoreka edo abusu arrisku ikusiz gero, bideratzaileak berehala gelditzen du justizia errestituratiho prozesua (ikus II-V eranskina).
- Justizia errestituratihoa ez da indarkeria berpribatizatzeo modu bat, baldin eta hirugarren pertsona batek gauzatzen badu (bideratzaile aditu batek), agintari judizial batek eskatuta eta fiskaltzak ikuskatuta, eta, horrez gain, kontu ematen bada barne memorien eta justizia errestituratiho zerbitzuekiko independenteak diren kanpo auditorien bidez (zerbitzu horiek zerbitzu publikotzat hartzen dira, administrazioaren mendekotzat).
- Gainera, prozesu errestituratiho batek lagundu egin diezaieke justizia penalean konfiantzarik ez duten edo biktimeizazio sekundario baten beldur diren biktimei, isiltasuna gainditzen eta babes handiagoo aurkitzen (komunitatearen babesa barne, aktibisten, biktime taldeen edo biktimeizazio zerbitzu publikoen bidez), aintzat harturik biktime bakoitzaren premiak eta horiei erantzun bat emanez (ikus VI. eranskina).
- Ikerketak agerian utzi ditu justizia errestituratihoaren eraginkortasunari buruzko ebidentzia esanguratsuak, eraginkortasuna bai biktimeizazio, bai arau hausleentzat eta baita komunitatearentzat ere, eta kontuan hartzen du delitu mota honek norbanakoari eta gizarteari egiten dien kaltea. Ikerketaren emaitzek adierazten dute justizia errestituratihoak aukera ematen diela biktimei beren ahotsa erreklamatzeko; horri esker, haien behar dinamikoak entzun daitezke eta, aldi berean, arau hausleen erantzukizuna sustatu. Azterlanen ondorioek sistematikoki diote prozesu errestituratihoek biktimei laguntzen dietela prozesu traumatikooa ixten eta osatzen, gogobetetasun ehuneko oso handiak lortzen direla haiei esker, txikitu egiten dela kalte gehiagoo nozitzeko beldurra eta murriztu trauma osteko estresaren sintomak. Era berean, ikerketek berresten dute justizia errestituratihoak laguntzen duela delituan atzera egiten, murriztu egiten duela berrerortzea eta areagotu egiten duela kaltea ordaintzeko betekizuna, erantzukizun zibilaren betekizunak barne, justizia penal arruntaren beste prozesu batzuekin konparatuta (ikus VII. eranskina).
- Maila konparatihoan, honako hau nabarmentzen du Australia, Belgika, Kanada, Danimarka, Irlanda, Zeelanda Berria, Erresuma Batua, Herbehereak eta AEBko sexu delituetarako justizia errestituratiho programei buruzko ikerketaren ebaluazio enpiriko batek: 1) topaketa eta prozesu errestituratihoaren ondoren, biktimek sentitzen dute delituaren erantzukizuna ez dela haiena, pertsona arau hauslearena baizik; 2) biktime askok diote ahaldunduta sentitzen direla, erabakiak hartzeko unean parte hartzen dutelako eta nahi diren emaitzak lortzen direlako, eta batzuek gehitzen dute “atzean utz” dezaketela delitua topaketa errestituratihoaren ondoren;

3) oro har, barkamena ez da funtsezkoa prozesu errestitutiboak biktima gogobete dezan; 4) justizia errestitutiboaren zuzeneko edo zeharkako esku hartzeen egokitasuna biktimen beharren arabera da; 5) biktima subrogatuaren bizitza oso modu nabarmenean hobetzen da zirkulu errestitutiboari esker, baita prozesu errestitutiboan haien aurka zuzenean delitua egin ez duen arau haulearekin elkartzen direnean ere; eta 6) gero eta ikerketa gehiagok diote hobetu egiten dela biktimen ongizatea prozesu errestitutiboaren ondoren (bereziki garrantzitsua sexu indarkeriaren testuinguruan, trauma muturrekoa izan daitekeelako): hala nola trauma ondoko estresa murrizten dela, beldurra txikitu eta gizarte bizitza eta harremanak hobetu, eta gai direla delituz eta haren ondorio kaltegarriez hitz egiteko (ikus dokumentu honetako erreferentziak).

- Duela gutxi nazioarteko arau gehienek justizia errestitutiboaren erabilera handiago bat sustatzen dute, diskriminaziorik ezaren printzipioa errespetatuta, eta horren barruan sartzen da kontuan hartzea espezifikoki nagusitzen ari den *interseksionalitatearen* dimentsioa; hots, hainbat diskriminazio iturriren gainezarpina (ikus VIII eranskina). Azken batean, helduen jurisdikzio penalean emakumeei nagusiki -baita beste kolektibo batzuei ere- eragiten dien debeku orokor batekin dakar aurretik aipatutako onurak orokorki baztertzea, ikerketak kuantitatiboki eta kualitatiboki frogatu dituen onurak. Era berean, agerian uzten du kontraesan bat, bitartekaritza eta adiskidetzea onartzen dituen erasotzailea adin txikikoa denean, biktimaren (emakumea) adina gorabehera.

### Iturriak:

- Bolitho, J. & K. Freeman (2016). *The use and effectiveness of restorative justice in criminal justice systems following child sexual abuse or comparable harms*. Royal Commission into Institutional Responses to Child Sexual Abuse.
- Braithwaite, J. (2020). Sexual assault, corporate crime and restorative practices. *International Institute for Restorative Practices Presidential Paper Series*, 2.
- Burns, C. J., & Sinko, L. (2021). Restorative justice for survivors of sexual violence experienced in adulthood: a scoping review, *Trauma, Violence, & Abuse*, 15248380211029408.
- Centre for Innovative Justice (2014). *Innovative justice responses to sexual offending – pathways to better outcomes for victims, offenders and the community*. Centre for Innovative Justice.
- Coker, D. (2018). Restorative responses to campus sexual harm: promising practices and challenges, *The International Journal of Restorative Justice*, 1, 385-398.
- Community Legal Centers NSW (2019). Restorative justice after sexual assault, <https://www.clcns.org.au/restorative-justice-after-sexualassault>.
- Daly, K. (2011). Conventional and innovative justice responses to sexual violence, *ACSSA Issues*, 12, 1-35.
- Drost, L., Haller, B., Hofinger, V., Van der Kooij, T., Lünemann, K. & Wolthuis, A. (2015). *Restorative Justice in Cases of Domestic Violence. Best practice examples between increasing mutual understanding and awareness of specific protection needs*. JUST/2013/JPEN/AG/4587) WS1. Comparative Report.
- Elbers, N. A., Akkermans, A., Soletto, H., Fiodorova, A., Grané, A., Tamarit, J. M., et al. (2020). Fair and Appropriate? Compensation of Victims of Sexual Violence in EU Member States: Greece, Italy, Latvia, the Netherlands and Spain. Part II: State and Offender Compensation: Survey, Good Practices and Recommendations, [https://papers.ssrn.com/sol3/papers.cfm?abstract\\_id=3732186](https://papers.ssrn.com/sol3/papers.cfm?abstract_id=3732186).
- European Forum of Restorative Justice (2017). *Effectiveness of restorative justice practices An overview of empirical research on restorative justice practices in Europe*. European Forum of Restorative Justice.
- Gang, D., Loff, B., Naylor, B. Kirkman, M. (2021). Opening pathways to restorative justice: Analysis of parliamentary debates on sex crime law reform in Victoria, Australia. *Social Politics*, 1-24.
- Hudson, B. (2002). Restorative justice and gendered violence: Diversion or effective justice? *British Journal of Criminology*, 42(3), 616-34.
- Keenan, M. (2014). *Sexual trauma and abuse: Restorative and transformative possibilities? A collaborative study on the potential of restorative justice in sexual crime in Ireland*. School of Applied Social Science, University College Dublin.
- Keenan, M., Zinsstag, E. & O’Nolan, C. (2016). Sexual violence and restorative practices in Belgium, Ireland and Norway: a thematic analysis of country variations, *Restorative Justice: An International Journal*, 4(1), 86-114.
- Keenan, M & Zinsstag, E. (2022). *Sexual violence and restorative justice: addressing the justice gap*. Oxford: Oxford University Press.
- Keenan, M., Ward, T. & Zinsstag, E. (2022). The Good Lives Model and restorative justice: combined potential in cases of sexual violence, *Journal of Sexual Aggression*.
- Koss, M.P. (2006). Restoring rape survivor’s justice, advocacy, and a call to action. *Ann. New York Academy of Sciences*, 1087, 206–234.
- López, E.C., Koss, M.P. (2017). The RESTORE Program for sex crimes. Differentiating therapeutic jurisprudence from restorative justice with therapeutic components. In *Restorative responses to sexual violence. Legal, social and therapeutic dimensions*, 212-228. Routledge.

- McGlynn, C., Westmarland, N. & Godden, N. (2012). 'I just wanted him to hear me': sexual violence and the possibilities of restorative justice, *Journal of Law and Society*, 39 (2), 213-240.
- Mercer, V., Sten Madsen, K., Keenan, M., & Zinsstag, E. (2015). *Sexual violence and restorative justice: A practice guide*. KU Leuven Institute of Criminology.
- Pali, B. & Sten Madsen, K. (2011). Dangerous liaisons? A feminist and restorative approach to sexual assault, *Temida*, 14(1), 49-65.
- Pali, B (2021). Challenging co-optive criminalisation: Feminist-centred decarceration strategies for interpersonal and sexualised violence. *Howard J. Crim. Justice* 61:68–86.
- Pereda, N., & Tamarit, J. M. (2019). ¿Ciegos ante la perspectiva de género o ciegos ante la evidencia empírica sobre la violencia en las relaciones de pareja? Comentario a Ferrer-Pérez y Bosch-Fiol, *Anuario de Psicología Jurídica*, 29, 85-87.
- Restorative Justice Council (2016). Restorative justice and sexual harm, <https://restorativejustice.org.uk/restorative-justice-and-sexualharm>.
- Sten Madsen, K. (2006). Mediation as a way of empowering women exposed to sexual coercion, *NORA - Nordic Journal of Feminist and Gender Research*, 12(1), 58-61.
- Varona, G. (2018). Misunderstanding risk, migration and ethnicity in intimate partner violence. In *Intimate Partner Violence, Risk and Security*, 142-160. Routledge.
- Varona, G. (in press). Dancing the legal prohibition of restorative justice in IPV against women: Flamenco beats an encounter, *The International Journal of Restorative Justice*.
- Villacampa, C. (2021). Spanish criminal policy and the state pact on gender violence: a critical assessment. *SN social sciences*, 1(5), 1-20.
- Walgrave, L., Ward, T., & Zinsstag, E. (2021). When restorative justice meets the Good Lives Model: Contributing to a criminology of trust, *European Journal of Criminology*, 18(3), 444-460.
- Why me? (2021). *Using restorative approaches for domestic and sexual abuse: A personal choice*. Why me?
- Zinsstag, E., Keenan, M. & Aertsen, I. (2015). *Developing integrated responses to sexual violence: An interdisciplinary research project on the potential of restorative justice. Project Report*. Leuven Institute of Criminology.
- Zinsstag, E. & Keenan, M. (eds.) (2017). *Sexual violence and restorative justice: legal, social and therapeutical dimensions*. Routledge.

<b>SINATZAILEAK</b>		
	<b>IZENA</b>	<b>LANBIDEA</b>
<b>1</b>	<b>AERTSEN, Ivo</b>	Kriminologiako katedradun emeritua Lovainako Unibertsitatea (Belgika), Kriminologiako doktorea, Zuzenbideko masterra eta Psikologiako masterra
<b>2</b>	<b>AJA RUIZ, Carmen</b>	Zuzenbide kolaboratiboan espezializatutako abokatua (Madril)
<b>3</b>	<b>AYORA I MASCARELL, Lidia</b>	Bitartekaritza eta Aholkularitza Teknikoko zerbitzuburua, Komunitateko Zigor Betearazpen eta Gazte Justiziako Zuzendaritza Nagusia, Kataluniako Generalitatea
<b>4</b>	<b>BARRAGÁN, Mercedes</b>	Zuzenbide Penaleko irakaslea, Isabel I Unibertsitatea (Peru)
<b>5</b>	<b>BENÍTEZ JIMÉNEZ, M José</b>	Zuzenbide Penaleko irakasle doktorea, Malagako Unibertsitatea
<b>6</b>	<b>BOLDOVA PASAMAR, Miguel Ángel</b>	Zuzenbide Penaleko katedraduna, Zaragozako Unibertsitatea
<b>7</b>	<b>BONINI, Valentina</b>	Zuzenbide Penal Prozesaleko irakasle doktore elkartua, Pisako Unibertsitatea (Italia)
<b>8</b>	<b>CABOS SOLE, Isabel</b>	Justizia Errestauratiboko Programaren koordinatzailea, Kataluniako Generalitatea
<b>9</b>	<b>CAMAZÓN LINACERO, M<sup>a</sup> Concepción</b>	Delituen Biktimei Laguntzeko Bulegoko kudeatzailea
<b>10</b>	<b>CAMPOS CRISTOBAL, Raquel</b>	Delituen Biktimei Laguntzeko Bulegoko letratua (Valentzia)
<b>11</b>	<b>CAMPOS MARTINEZ, Inmaculada</b>	Abokatu kolaboratiboa Abokatutza Kolaboratiboko arloan
<b>12</b>	<b>CALVO SOLER, Raúl</b>	Zuzenbidea eta Kriminologiako irakasle doktore titularra, Gironako Unibertsitatea (eszedentzian) San Andres Unibertsitateko irakaslea (Argentina) San Isidro eta Pergaminoko Gazte Justizia eta Praktika Errestauratiboan Programako zuzendaria
<b>13</b>	<b>CASTILLA JIMÉNEZ, José</b>	Abokatua eta bideratzailea (Sevilla)
<b>14</b>	<b>CARNEVALI, Raúl</b>	Zuzenbide Penaleko Ikasketen Zentroko zuzendaria, Talcako Unibertsitatea (Txile)
<b>15</b>	<b>CARRASCOSA DE MIGUEL, Ana María</b>	Magistratua. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko letratua.
<b>16</b>	<b>CEREZO DOMÍNGUEZ, Anabel</b>	Zuzenbide Penaleko katedraduna, Malagako Unibertsitatea. Andaluziako Unibertsitate arteko Kriminologia Institutuko zuzendaria
<b>17</b>	<b>CERÓN I RIERA, Marc</b>	Formakuntza eta Ikerketako zuzendariorde nagusia, Azterlan Juridiko eta Formakuntza Espezializatuko Zentroa, Kataluniako Generalitateko Justizia, Eskubideak eta Memoria Saila

18	CHAPMAN, Tim	Justizia Errestauratiboaren Europako Foroaren Zuzendaritza Batzordeko kidea (Ipar Irlanda)
19	CHRISTEN SCHNEIDER, Claudia	Kriminologoa. Kriminologia eta Zuzenbide Penala masterra. Justizia Errestauratiboaren Europako Foroaren Zuzendaritza Batzordeko kidea
20	COCHRANE, Gael	Abokatu. Bideratzailea. Justizia Komunitarioko Ikaskuntza, Garapena eta Berrikuntza arduraduna, Eskoziako Justizia Sistema
21	CONDOMINAS CASANOVAS, Elisenda	Bitartekaritza eta Aholkularitza Teknikoko Zerbitzuko psikologoa, Kataluniako Generalitateko Justizia Saila.
22	DALMÁS PORQUERES, Anna	Bitartekaria, AGI Fundazioaren (Katalunia) Justizia Errestauratiboko Programa
23	DE LA CUESTA ARZAMENDI, José Luis	Zuzenbide Penaleko katedraduna eta Kriminologiaren Euskal Institutuko zuzendaria, UPV/EHU
24	DE LA MATA BARRANCO, Norberto	Zuzenbide Penaleko katedraduna, UPV/EHU
24	DE MALIBRAN PAGÈS, Imma	Gizarte langilea eta bitartekaria, Bitartekaritza eta Aholkularitza Teknikoko Taldea, Kataluniako Generalitatea
25	DE VICENTE CASILLAS, Cristina	Bizkaiko Lurralde Auzitegiko magistratua, 6. Sekzioa, Emakumearen aurkako Indarkeria
26	DELGADO CARRILLO, Laura	Zuzenbide Penal eta Kriminologia Saileko irakasle doktore laguntzailea, UNED
27	DÍEZ RIPOLLÉS, José Luis	Zuzenbide Penaleko katedradun emeritua, Malagako Unibertsitatea
28	ECHEBURUA ODRIOZOLA, Enrique	Psikologia Klinikoko katedradun emeritua, UPV/EHU
29	ELEZCANO ATIENZA, Laura	Indarkeri arretako aholkulari juridikoa, Euskal Herria
31	ESPARZA LEIBA, Iñaki	Zuzenbide Penaleko katedraduna, UPV/EHU
32	ETXEBARRIA ZARRABEITIA, Xabier	Zuzenbide Penaleko irakasle doktore laguntzailea, Madrilgo Complutense Unibertsitatea
33	FALCÓN CARO, M <sup>a</sup> Castillo	Bitartekaria. Zuzenbide Penaleko irakasle doktorea, Sevillako Unibertsitatea
34	FRANCÉS LECUMBERRI, Paz	Zuzenbide Penaleko irakasle doktore kontratatua, Nafarroako Unibertsitate Publikoa
35	GADDI, Daniela	Zuzenbide Penal eta Kriminologiako irakasle elkartua, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa. Bitartekaria
36	GAMIZ IRAOLA, Aintzane	Batetik Fundazioko bideratzailea, Euskadi
37	GARAYOA ALZÓRRIZ, M <sup>a</sup> Belén	Psikologoa. Justizia Administrazioaren Zerbitzura dauden Talde Teknikoetako kidea (SAV/SJR), Nafarroa
38	GARCÍA ESPAÑA, Elisa	Zuzenbide Penaleko eta Kriminologiako katedraduna, Malagako Unibertsitatea
39	GARCÍA MAGNA, Deborah	Zuzenbide Penaleko irakasle doktore kontratatua, Malagako Unibertsitatea
40	GARCÍA PÉREZ, Octavio	Zuzenbide Penaleko katedraduna, Malagako Unibertsitatea
41	GARCÍA ROQUETA, Carles	Abokatu, arbitroa eta bitartekaria. Kataluniako Osasun arloko Bitartekaritza Elkarteko presidentea
42	GARCÍA RUIZ, Ascensión	Zuzenbide Penal eta Kriminologiako irakasle doktore laguntzailea, Madrilgo Complutense Unibertsitatea
43	GARCÍA VILAJUANA, Jorge	Bitartekaritza eta Justizia Errestauratiboaren Bulegoko burua, Nafarroako Gobernua
44	GARD BUSCARONS, Silvia Isis	Psikologoa. Delituaren Biktimako Arreta Bulegoa, Bartzelona
45	GARMENDIA LOYARTE, Elisabeth	Justizia Errestauratiboko bideratzailea eta doktoregaia, Granadako Unibertsitatea
46	GEMME	Bitartekaritzaren aldeko Europako Magistratuen Taldea
47	GERMÁN MANCEBO, Isabel	Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzaile doktorea, UPV/EHU. Ordezko magistratua
48	GÓMEZ GUTIERREZ, Mar	Nortasun, Ebaluazio eta Psikologia Klinikoko Saileko irakasle doktore titularra. Psikologia Fakultatea. Madrilgo Complutense Unibertsitatea
49	GÓMEZ ZAPIAIN, Javier	Psikologoa eta Euskal Biktimologia Sozietateko kidea. Sexualitatearen Psikologiako irakasle doktore titularra (erretiratu), UPV/EHU
50	GONZÁLEZ AGUDELO, Gloria	Zuzenbide Penaleko irakasle doktore titularra, Cadizko Unibertsitatea
51	GUARDIOLA LAGO, María Jesús	Zuzenbide Penaleko irakasle doktore agregatua, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa
52	GUIL ROMÁN, Carme	Bartzelonako Lurralde Auzitegiko zigor arloko magistratua. Bitartekaritzaren aldeko Europako Magistratuen Taldeko presidentea.
53	HALONEN, Anna	Bitartekaritza aholkularia eta Pirkanmaako Bitartekaritza Bulegoko zuzendariordea (Finlandia). Genero Indarkeria eta Justizia Errestauratiboari buruzko Lantaldeko kidea, Justizia Errestauratiboaren Europako Foroa
54	HERNÁNDEZ MOURA, Belén	Zuzenbide Prozesaleko irakasle doktore laguntzailea, Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatea
55	HERRERA MORENO, Myriam	Zuzenbide Penaleko irakasle doktore titularra, Sevillako Unibertsitatea
56	IGARTUA LARAUDOGOITIA, Idoia	Zuzenbide Penaleko irakasle doktore laguntzailea eta Justizia Errestauratiboaren Teoria eta Praktika Laborategiko kidea, UPV/EHU
57	IRAIZOZ OIAGA, Garazi	Delituaren Biktimei Laguntzeko Bulegoko psikologoa, Nafarroa

58	KEENAN, Marie	Kriminologoa, bideratzailea, auzitegiko psikoterapeuta eta gizarte langile erregistratua. Gizarte Politika, Gizarte Langintza eta Gizarte Justiziako Eskolako irakasle doktore elkarte, University College Dublin (Irlanda)
59	LANDA GOROSTIZA, Jon Mirena	Zuzenbide Penaleko katedraduna (akred.) eta Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO katedrako zuzendaria, UPV/EHU
60	LANDARROITAJAUREGI GARAI, José Ramón	Sexologo eta bikote terapeuta (baita irakaslea eta idazlea) y terapeuta de pareja (también: docente y escritor). Sexologia Sustantiboko Zuzendaria eta Biko Arloak-ko zuzendarikidea. Sexologiako langileen Elkarte Estataleko kide sortzailea (AEPS)
61	LARRAURI PIJOAN, Elena	Zuzenbide Penal eta Kriminologiako katedraduna, Pompeu Fabra Unibertsitatea
62	LEDESMA MORENO, Manuel	Abokatua eta Justizia Errestitatiboaren Zerbitzuko kidea, Nafarroako Unibertsitatea
63	LLORENTE SÁNCHEZ-ARJONA, Mercedes	Zuzenbide Prozesaleko irakasle doktore titularra, Sevillako Unibertsitatea
64	MACULAN, Elena	Zuzenbide Penal eta Kriminologiako irakasle doktore titularra, UNED
65	MAESO VENTUREIRA, Augusto	Gipuzkoako Lurralde Auzitegiko magistratua.
66	MATEO GONZÁLEZ, Dídac	Justizia Penal Errestitatiboko Taldeko kidea, Kataluniako Generalitatea
67	MAUREL SANTASUSANA, María Luisa	Bartzelonako Zigor Arloko 25 zenbakiko Epaitegiko magistratua
68	MARIN ALVAREZ, Carmen	Justizia Administrazioaren letratua, Murtziako Auzitegi Barruko Bitartekaritzaren Unitatea
69	MARTÍNEZ ESCAMILLA, Margarita	Zuzenbide Penaleko Katedraduna, Madrilgo Catedrática de Derecho penal, Madrilgo Complutense Unibertsitatea
70	MARTÍNEZ FERRER, Vivas	Biktimei Laguntzeko Bulegoko gizarte langilea, Valentzia
71	MARTÍNEZ LARBURU, Pablo	Espetxe Administrazioako legelaria
72	MENDIGUREN BARANDIARAN, Gregoria	Euskal Biktimologia Sozietateko kidea. EAEko Biktimei Laguntzeko Zerbitzuko psikologoa (erretiratua)
73	MERCADÉ CALULL, Andrea	Justizia Errestitatiboko Taldeko bitartekari penala, Kataluniako Generalitatea
74	MERCER, Vince	Prestatzaile independentea Praktika Errestitatibo/Sexu Portaera Kaltegarrien alorrean, eta <i>The AIM Restorative Practice and Harmful Sexual Behaviour Assessment Framework and Practice Guidance</i> jardueraren sortzailea
75	MORENO ÁLVAREZ, Roberto	Justizia eta espetxean dauden pertsonen arloaren koordinatzailea, Arartekoa
76	NICOLÁS LÓPEZ, Rocío	Gizarte hezitzailea. Justizia Errestitatiboan ikertzailea. Doktoregaia. Madrilgo Complutense Unibertsitatea
77	OLALDE ALTAREJOS, Alberto José	Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakasle doktore laguntzailea eta Justizia Errestitatiboaren Teoria eta Praktikako Laborategiko kidea, UPV/EHU
78	OLLERO PERÁN, Jorge Elías	Justizia Errestitatiboaren Europako Foroaren Zuzendaritza Batzordeko kidea. Legelaria. Bideratzailea. Espetxe Erakundeetako Teknikarien Kidegoko funtzionarioa. Justizia Errestitatiboaren Zerbitzuko zuzendaria, Nafarroako Gobernua
79	ORBE OLEAGA, José Juan	Abokatua eta bitartekaria, EAE
80	OBERGOZO ORONÓZ, Izaskun	Zuzenbidean doktorea. Ikertzailea eta Justizia Errestitatiboaren Teoria eta Praktika Laborategiko kidea, UPV/EHU
81	ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko	Zuzenbide Prozesaleko irakasle doktore titularra, UPV/EHU
82	ORTIZ-PRADILLO, Juan Carlos	Zuzenbide Prozesaleko irakasle doktore titularra, Madrilgo Complutense Unibertsitatea
83	PALI, Brunilda	Antropologia Saileko ikertzaile doktore seniorra, Lovainako Unibertsitate Katolikoa (Belgika). Justizia Errestitatiboaren Europako Foroaren Zuzendaritza Batzordeko kidea
84	PALMA CHAZARRA, Luhé	Bitartekaria eta Zuzenbide Penaleko irakasle doktore elkartua, Sevillako Unibertsitatea
85	PASCUAL RODRÍGUEZ, Esther	Zuzenbide Penaleko irakasle doktore kontratatua, Kriminologiako Graduoko zuzendaria, Francisco de Vitoria Unibertsitatea
86	PATRIZI, Patrizia	Justizia Errestitatiboaren Europako Foroaren Zuzendaritza Batzordeko presidentea. Psikologoa eta psikoterapeuta. Psikologia Juridiko eta Justizia Errestitatiboko Praktiken irakasle doktore titularra Sassariko Unibertsitatea (Italia)
87	PEACOCK, Robert	Munduko Biktimologia Elkarteko presidentea (2018-2022). Kriminologia Saileko burua, Estatu Libreko Unibertsitatea (Hegoafrikako Errepublika)
88	PEREDA BELTRÁN, Noemí	Psikologia Kliniko eta Osasuneko doktorea eta Biktimologiako irak. titularra, Bartzelonako unibertsitatea
89	PÉREZ JIMÉNEZ, Fátima	Zuzenbideko irakasle doktore kontratatua, Andaluziako Unibertsitate arteko Kriminologia Institutua (Malaga).
90	PUGA ARCOS, María del Mar	Justizia Errestitatiboko Programako bideratzailea, Kataluniako Generalitatea. Justizia Errestitatiboaren Teoria eta Praktika Laborategiko kidea,

		UPV/EHU
91	QUINTANA GARCÍA, Amparo	ADR abokatua, bitartekaria eta irakaslea
92	RÍOS MARTÍN, Julián Carlos	Zuzenbide Publikoa Saileko irakasle doktore agregatua, Zuzenbide Fakultatea, ICADE
93	ROBLES DE ACUÑA, Adela	Zuzenbideko doktorea eta bitartekaria
94	RODRIGUEZ I RODRIGUEZ, Albert	Justizia Errestauratiboko Programako bideratzailea eta bitartekaria, Kataluniako Generalitatea
95	RODRÍGUEZ LÓPEZ, M <sup>a</sup> Paz	Biktimei Laguntzeko Zerbitzuko psikologoa, Eusko Jaurlaritza
96	RODRÍGUEZ SÁEZ, José Antonio	Bartzelonako Lurralde Auzitegiaren hirugarren sekzioko magistratua
97	ROMERA ANTÓN, Carlos	Espetxeetako Justizia Errestauratiboko Programako bideratzailea, EAE
98	ROMERO RODRÍGUEZ, Paulina	Abokatua eta bitartekaria
99	RUBIO MARÍN, Ruth	Konstituzio Zuzenbideko katedraduna, Sevillako Unibertsitatea
100	SÁEZ RODRÍGUEZ, Concepción	Justizia Administrazioaren letratua eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kidea
101	SAINZ DE ROZAS BEDIALAUNETA, Rafael	Letratua. Justizia eta Migrazio Politikak Saileko Justizia arloko zuzendari nagusia, Nafarroako Gobernua
102	SALAT PAISAL, Marc	Zuzenbide Penaleko irakasle doktore elkartua, Lleidako Unibertsitatea
103	SÁNCHEZ RUBIO, Beatriz	Doktorego ikertzailea, Sevillako Unibertsitatea
104	SANTOS ITOIZ, Eduardo	Letratua eta bideratzailea. Justizia eta Migrazio Politiken sailburua, Nafarroako Gobernua
105	SCOTLAND, Ashley	<i>Thriving Survivors</i> ongintzako erakundearen zuzendari nagusia. Sexu delituetarako justizia errestauratiboko zerbitzu bat du (Glasgow).
106	TAMARIT SUMALLA, Josep Maria	Zuzenbide Penaleko katedraduna, Lleidako Unibertsitatea
107	TORRES FERRER, Clàudia	Zuzenbide Publikoa Saileko doktorego aurreko ikertzailea, Lleidako Unibertsitatea
108	UNCILLA GALÁN, Idoia	Bilboko Zigor-arloko 7 zenbakiko Epaitegiko magistratua (zigor arloko betearazpen aginduak)
109	VALL RIUS, Anna	Gatazkak Konpontzeko Bide Alternatiboak eta Biktimologiako irakasle doktore elkartua, Bartzelonako Unibertsitatea Logos Media enpresako bideratzailea
110	VARONA MARTÍNEZ, Gema María	Euskal Biktimologia Sozietateko presidentea. Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzaile doktore iraunkorra. Biktimologiako irakaslea eta Justizia Errestauratiboaren Teoria eta Praktika Laborategiko kidea, UPV/EHU
111	VILÀ VALLS, Ester	Bitartekaria, Justizia Errestauratiboko Programa, Kataluniako Generalitatea
112	VILLACAMPA ESTIARTE, Carolina	Zuzenbide Penaleko katedraduna, Lleidako Unibertsitatea
113	ZINSSTAG, Estelle	Kriminologiako irakasle doktorea, Napier Unibertsitatea (Edinburgo). Lovainako Kriminologia Institutuko ikertzaile seniorra, Belgika
114	ZULOAGA LOJO, Lohitzune	Soziologia Arloko irakasle doktore kontratatua, Nafarroako Unibertsitate Publikoa